



Danborra ez da kolpatzen; jo egiten da.





Gaztelaniaren eraginez, euskarazko hitz batzuei beste hitz batzuen adierak ematen zaizkie (beharrik gabe). Aurreko fitxa batzuetan, aztertuak ditugu horrelako zenbait interferentzia (*eman/gertatu, proba/froga, probatu/frogatu, baimendu/ahalbidetu, ikasi/aztertu, ezagutu/izan, semeak/semi-alabak, erregeak/errege-erreginak*), eta beste zenbait ditugu aztergai fitxa honetan.

- *eman/gertatu*
- *baimendu/ahalbidetu, ikasi/aztertu, ezagutu/izan*
- *proba/froga*
- *probatu/frogatu*
- *semeak/semi-alabak*



sesio ≠ saio

Idoiak sesioa izan du
 zuzendariarekin, lana
 dela eta.

=

Idoiak liskarra izan du
 zuzendariarekin, lana
 dela eta.

- # Idoia arratsaldeko **sesiora** joan da zinemara.
- Idoia arratsaldeko **saioa** joan da zinemara.
 - Idoia arratsaldeko **emanaldira** joan da zinemara.





balore ≠ balio

Idoiak balorea¹ izan du zuzendariari aurre egiteko.

=

Idoiak adorea izan du zuzendariari aurre egiteko.

Krisia dela eta, asko jaitsi da etxebizitzan **balorea**.

- Krisia dela eta, asko jaitsi da etxebizitzan **balioa**.

(1) *Hiztegi Batua*

Balore 1 iz *Lgart.* h. **adore**; **kemen**

Alegia, erregistroari dagokionez, lagunartean erabiltzen den hitza da, eta euskara baturako, *adore* eta *kemen* hitzak hobesten dira haren orde.



kolpatu ≠ jo

Makila batez kolpatu zuten. = Makila batez zauritu zuten.

Hiztegi Batua.

Kolpatu, kolpa, kolpatzen. *du* ad.: *ganibet-ukaldiz kolpatu zuten.*
*(teklak-eta ez dira kolpatzen)*¹ Sin. **Zauritu**

Euskaltzaindiaren Hiztegia.

Kolpatu, kolpa, kolpatzen *da/du* ad. Zauritu

Makilaz **kolpatu** zuten mahaia.

• Makilaz **jo** zuten mahaia.



—⁽¹⁾ Teklak-eta jo egiten dira.



zenbaki \neq kopuru

Zenbaki bakoitiak: 1, 3, 5, 7, 9, 11, 13, 15...

- * Digitu bakarreko zenbakia lortzeko egin behar den **biderketa-zenbaki**ari deritzo persistentzia.
- Digitu bakarreko zenbakia lortzeko egin behar den **biderketa kopuru**ari deritzo persistentzia.



altxatu ≠ kendu

- # Bizikleten martxaren aurkako **debekua altxatu** zuen epaileak herenegun.
 - # NBEak **betoa altxatu** ondoren, nazioarteko erakundeen laguntzak hasiko dira iristen.
 - # Nazioarteak Irani ezarritako **isunetako batzuk altxatu** ostean, aukera gehiago sor daitezke.
-
- Bizikleten martxaren aurkako **debekua kendu** zuen epaileak herenegun.
 - NBEak **betoa kendu** ondoren, nazioarteko erakundeen laguntzak hasiko dira iristen.
 - Nazioarteak Irani ezarritako **isunetako batzuk kendu** ostean, aukera gehiago sor daitezke.

aparailu ≠ aparatu, tresna

Euskaltzaindiaren Hiztegia:

aparailu 1 iz. Arrantza tresneria
2 iz. Zamarien tresneria



- # Filmak etxean ikusteko, DVD **aparailu** bat erosi dut.
- Filmak etxean ikusteko, DVD **aparatu** bat erosi dut.



bikote ≠ bikotekide; (bikote-)lagun; kide

Euskaltzaindiaren Hiztegia:

bikote 1. iz. Bi lagunez osatutako taldea

bikote 2. iz. Bi gauzak osaturiko multzoa



- # Lana lortzen dudanean, **bikote**arekin biziko naiz.
- Lana lortzen dudanean, **bikotekide**arekin biziko naiz.
- Lana lortzen dudanean, **neska-lagun**arekin/**mutil-lagun**arekin biziko naiz.
- # Ez dakit non utzi dudan galtzerdi honen **bikotea**.
- Ez dakit non utzi dudan galtzerdi honen **laguna**.
- # Ainhoa dut **dantza-bikote**.
- Ainhoa dut **dantza-lagun**.



gizon ≠ gizaki

Euskaltzaindiaren Hiztegia:

gizaki iz. Giza espezieko banakoa, arra nahiz emea

gizon iz. Gizaki arra



- # Lehenengo **gizon**ak kobazuloetan bizi ziren, eta ehiztariak eta sarraskijaleak ziren.
- Lehenengo **gizaki**ak kobazuloetan bizi ziren, eta ehiztariak eta sarraskijaleak ziren.



arduradun ≠ errudun; erantzule; eragile

Arduradun: ardura duena

- Sei talde osatuko ditugu, eta talde bakoitzak **arduradun** bat izango du.

Istripuaren **arduradun**a legezkoa baino gehiago edanda zegoen gizon bat zen.

• Istripuaren **errudun**a legezkoa baino gehiago edanda zegoen gizon bat zen.

• Istripuaren **eragile**a legezkoa baino gehiago edanda zegoen gizon bat zen.



arduradun ≠ errudun; erantzule; eragile

- # Gurasoak seme-alaben jokabideen **arduradun**ak dira.
 - Gurasoak seme-alaben jokabideen **erantzule**ak dira.

- # Hiru faktore dira VO_2 -aren hazkuntzaren **arduradun**ak:
biriketako aireztatze-bolumena handitzea, gastu kardiakoa areagotzea eta arterien eta zainen arteko oxigeno-diferentzia handitzea.
 - Hiru faktore dira VO_2 -aren hazkuntzaren **eragile**ak:
biriketako aireztatze-bolumena handitzea, gastu kardiakoa areagotzea eta arterien eta zainen arteko oxigeno-diferentzia handitzea.